

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO TITULAZIOETAKO HAUTAZKO KREDITUEN AITORPENA

EHUko araudi orokorraren arabera, kredituengatiko onarpen akademikoaren xede izan daitezke kultura, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak-jarduerak, betiere gehienez ikasketa-plan osoko 6 ECTS kreditu lortu ahal izango direlarik.

6 ECTS kredituko muga horretan sartzen dira gradu onartutako curriculumetik kanpoko jarduerak guztiak (kanpo-praktikak, jardunaldiak eta mintegiak, kultur, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak-jarduerak gain).

Ikastegiak 6 ECTS kredituko programa itxi baten bidez onartu eta eskaini dituen kanpoko borondatezko praktiken kasuan izan ezik, curriculumetik kanpoko gainerako jarduerak ikasturte bakoitzeko 3 ECTS onartuko dituzte gehienez.

<https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdegrado-graduokoikasketak/kredituak-transferitu-eta-onartzeko-arautegia>

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak egiaztatu behar dituen jardueren kasuan, Akademia Antolakuntzako Batzordeak ezarriko du zein diren jarduerak bakoitzean hautazko kredituak aitortzeko irizpideak. Irizpide horiek honelako alderdiak hartuko dituzte kontuan: eskatutako aurrez-aurrekotasun maila, jardueraren prestakuntzarako inplikazioa edo jardueraren ondorengo onura, jardueraren intentsitatea (etengabeko arreta edo arreta etena), etab.

Osasun arloko jardueren kasuan, aurrez aurreko 15 ordu beharko dira ECTS kreditu baten aitortzea eskatzeko. Irizpideak aldeztatik ezar daitezke fakultatearen eta osasun zientzietako prestakuntza jardueren sustapenarekin lotutako erakundearen artean (lanbide elkargoak edo antzekoak, esaterako) erabakitako jardueretarako.

Modu indibidualean ere ezar daitezke aldi behingo jardueretarako, fakultateko ikasleek antolatutako jarduerak lehenetsita. Jarduera horiek iragarri egingo dira ikasleak bertaratu eta kredituak lor ditzaten ahalbidetzeko.

Ikasleek kredituen aitortzea eskatzeko prozedura

Ikastegiak ezarritako epean, ikasleak nahi duen kreditu kopurua aitortzeko eskaera aurkeztuko du, dagozkion akreditazioak eta ziurtagiriak aurkeztuz.

Erakunde antolatzaileak kredituen aitortzea eskatzeko prozedura

Bi hilabete lehenago, ekitaldiaren antolatzaileek eskaera orria (I. eranskina) beteiko dute dekanuari zuzenduta. Eskaera Akademia Antolakuntzako Batzordeak aztertu eta



MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

balioetsiko du. Batzorde horrek ezarriko du zenbat ECTS kreditu aitortuko diren eta zer baldintza bete beharko diren kredituak aitortzeko, lehen zehaztu bezala.

